

JARRAIBIDEEN I. ERANSKINA

GENEROAREN ARABERAKO ERAGINARI BURUZKO TXOSTENA

ARAU-PROIEKTUAREN EDO ADMINISTRAZIO-EGINTZARAKO PROPOSAMENAREN DESKRIBAPEN OROKORRA

1.- Arau-proiektuaren edo administrazio-egintzarako proposamenaren izendapena:

Borondatezko Gizarte Aurreikuspeneko Erakundeei buruzko lege-aurreproiektua¹.

2.- Sail edo Zuzendaritza sustatzailea:

Ekonomia eta Ogasun Saileko Finantza Zuzendaritza:

3.- Hala badagokio, proiektuarekin edo proposamenarekin zerikusia duten arau, plan eta bestelako agiriak:

- 25/983 Legea, urriaren 27koa, Borondatezko Gizarte Aurreikuspeneko Erakundeei buruzkoa.
- 87/1984 Dekretua, otsailaren 20koa, Borondatezko Aurreikuspen Sozialeko Entitateei buruzko Legearen Arautegia onartzen duena.
- 92/2007 Dekretua, maiatzaren 29koa, borondatezko aurreikuspen sozialeko erakundeen jarduera jakin batzuk arautzeko dena.
- Euskadiko Gizarte Aurreikuspen Osagarriko Plana, Jaurlaritzaren Kontseiluak 2006an onartua.
- 2003/41/EE zuzentaraua, enpleguko pentsio-funtsen jarduerari eta ikuskapenari buruzkoa.
- 4/2005 Legea, otsailaren 18koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerakoa.

4.- Arau-proiektuaren edo administrazio-egintzarako proposamenaren helburu orokorrak:

EAEn eratu diren eta eraturiko diren Borondatezko Gizarte-aurreikuspeneko Erakundeen (hemendik aurrera, BGAE esango zaie) araupena eguneratzea, behar bezala aintzat hartzeko:

- Europar Batasunak eman dituen gomendioak, gizarte-aurreikuspeneko sistema osagarrien garapena eta hazkundera bultzatzekoak, sistema publiko klasiko eta utziezinen indargarri gisa.
- Europako eta Estatuko arauen aginduak.
- Euskadiko Gizarte Aurreikuspen Osagarriko Planak finkatu dituen erronka nagusiak: ahalik eta gehien egokitzea demografia, gizarte-, ekonomia- eta finantza-testuinguruaren bilakaeratik eratorritako erronka berriei; eta aurreikuspen-sistema kolektiboak bultzatzea, batez ere enplegu-sistemak.

5.- Gizonen eta emakumeen berdintasuna bultzatzeko helburuak:

- Emakumeek BGAE erakundeen zuzendaritza-batzordeetan partaidetza handiagoa izan dezaten sustatzea.
- Gizarte aurreikuspen planetatik sortutako eskubide ekonomikoen bidezko banaketa ahalbidetu.

¹ Adibide hori osatzeko, erreferentzia moduan erabili da Ekonomia eta Ogasun Saileko Finantza Zuzendaritzak 2010eko irailean haren Berdintasunerako Unitatearen laguntzarekin egin duen Generoen araberako Eraginaren Txostena.

GENEROAREN ARABERAKO ERAGINAREN ALDEZ AURREKO EBALUAZIOA

Euskadiko Gizarte Aurreikuspen Osagarriko Diagnostikoak eta Planak (2004) adierazten dutenaren arabera, pentsio-planak borondatezko aurreikuspen-sistemak dira, Gizarte Segurantzaren pentsioen prestazio-sistemaren osagarriak, eta helburua dute bertako partaide edo onuradunei errenta bat ematea, erretiroaren edo legez onartutako bestelako kontingentzien kasuan. Horrenbestez, pentsio-planen prestazioak ez dira, inolaz ere, Gizarte Segurantzako erregimenean derrigorrezkoak diren prestazioen ordezko.

Hala ere, kontuan izan behar da gizarte-aurreikuspen osagarriko planak gero eta garrantzitsuagoak direla gobernuen agenda politikoan, are gehiago ekonomia- eta finantza-krisi egoera honetan, eta gizarte-segurantzako sistemaren finantza-egonkortasuna txikiagoa den egoera honetan. Faktore horien, sistemaren barne-izaeraren faktoreen eta demografia-faktoreen ondorioz (esaterako zahartze-tasa handitzea), diru-sarrera eta gastu publikoaren arteko desoreka azaleratu da, eta zalantzan ipini da epe luzerako pentsio-sistemaren bideragarritasun ekonomikoa.

Egoera hori dela, gobernuek pentsio-sistemaren krisi posibleari aurre egiteko aurreikuspen-alternatiba gisa ikusi dituzte gizarte-aurreikuspen osagarriko sistemak. Sistema horien funtsezko oinarria lanetik eratorritako aurrezkia da. Gauzak horrela, honek lan-merkatuan eta, ondorioz, lanetik eratorritako aurrezkiaren sartzeko zailtasunak dituzten kolektiboetan izan dezakeen gizarte-eragina aztertu behar da nahitaez, bereziki aztertuz emakumeek eta gizonek dituzten baldintza ekonomiko eta sozial desberdinekin lotutako guztia.

6.- Aurreikusten al da arauak edo administrazio-egintzak emakumei eta gizonei ekarriko dizkien onurek edo haien emaitzek lagundu egingo duela sektoreko desberdintasunak murrizten?

Ez. Ondoren emango ditugun datuetan ikusiko den moduan, Euskadin gizarte-aurreikuspeneko plan osagarriaren bat duten emakumeen ehunekoa nabarmen txikiagoa da gizonena baino; beraz, emakumeek planak eskura ditzaten sustatzeko neurririk abiarazi ez denez, ez da aurreikusten BGAE erakundearen erregimena eguneratu eta ezartzearen ondorioek pareko onura ekarriko dienik EAEko emakume eta gizonei; eta desoreka hori are nabarmenagoa izango da aintzat hartzen bada emakumeen bizi-itxaropena gizonena baino handiagoa dela, eta, ondorioz, babes handiagoa behar dutela.

BGAE erakundearen erregistroan jasotzen denez, Euskal Autonomia Erkidegoan, gizarte-aurreikuspeneko plan osagarriaren bat duten emakumeak 542.407 dira (% 41), eta gizonak, berriz, 786.566 (% 59). Horrek esan nahi du aldea % 18koa dela. Hori horrela, zenbaki orokorrak hartuta, gizartea osatzen dutenen artean emakumezkoak % 51 eta gizonezkoak % 49 direnez, agerikoa da gizonek emakumeek baino gizarte-babes osagarri handiagoa dutela.

BGAE erakundearen banaketa adinaren eta sexuaren arabera. 2008 Urtea.

	Emakumeak	E %	Gizonak	G %
35 urtetik behera	104.904	%40	156.259	%60
35 urtetik 44ra	144.090	%42	198.722	%58
45 urtetik 54ra	159.994	%44	203.254	%56
55 urtetik 64ra	100.561	%38	161.550	%62
64 urtetik gora	32.459	%33	65.938	%67
Zehaztu gabea	399	%32	843	%68
GUZTIRA	542.407	%41	786.566	%59

Iturria: BGAEen erregistroa

Adinari erreparatuz gero, ikusten da 64 urtetik gorako gizon eta emakumeen arteko aldea dela handienetarikoa, 34 punturainokoa baita. Adin-bitarte horretan, % 33 dira gizarte-aurreikuspeneko plan bat duten emakumeak; gizonak, berriz, % 67. Ildo horretatik, kontuan hartzekoa da adin-tarte horretan dela handiena emakumeen presentzia (% 58,3 dira), gizonen kopuruarekin konparatuta (% 41,7 dira gizonezkoak); izan ere, gizonezkoek baino bizi-itxaropen luzeagoa dute emakumeek. Horrenbestez, desoreka handiagoa da adin horietan, nahiz eta orduantxe behar den babesik handiena.

1.3. taula. EAeko biztanleria adin-taldeen eta sexuaren arabera. 2009

	Guztira	Emakumeak		Gizonak	
	Abs.	Abs.	%	Abs.	%
Guztira	2.172.175	1.109.763	51,1	1.062.412	48,9
0-15 urte	298.513	145.192	48,6	153.321	51,4
16-44 urte	866.936	422.063	48,7	444.873	51,3
45-64 urte	597.189	303.739	50,9	293.450	49,1
65 urte eta gehiago	409.537	238.769	58,3	170.768	41,7

Iturria: EIN. Erroldaren ustiapen estatistikoa
Euskadiko gizon eta emakumeen egoerari buruzko zifrak. 2010eko txostena.
Emakunde.

Desgaitasunari dagokionez, Lantegi Batuak BGAeri buruzko informazioa baino ez da lortu. Erakunde horretan, desgaitasun bat duten langileak baino ez dira ari, eta emakumeak % 38 dira. Horrela, beste behin gehiago, emakumeen ehunekoa -BGAE honen kasuan behintzat- txikiagoa da herritarren artean desgaitasuna duten emakumezkoen ehunekoa baino (59,8). (Iturria: EINeko zifrak, Desgaitasunak eta Urritasunak, 10/2009).

Azterketa hau osatzeko, hala ere, aztertu egin behar litzateke desgaitasun bat dutenen artean zenbat emakumek eta zenbat gizonak jasotzen dituen senideren baten, ezkontidearen edo kargupeko norbaiten ekarpenak. Hala ere, informazio hori ezin izan dugu lortu, zeren eta informazioa sexuaren arabera bereizita dagoen arren, ez dago erraz eskuratzeko moduan ustiatuta. Datuak lortzeko zailtasun horiek ere aztertu beharrekoak dira, gomendagarria baita arazo horiek konpontzeko neurri espezifikoak hartzea.

7.- Aurreikusten al da arauak edo administrazio-egintzak desagerrarazi edo, gutxienez, murriztu egingo dituela baliabideetarako sarbidean dauden desberdintasunak?

Ez. Izan ere, aurrerago azaltzen den moduan, emakumeentzat kaltegarri dira gaur egun produkzio- eta ugaltze-lanen banaketan eta baliabide ekonomikoen eskurapen-moduan dauden desberdintasunak. Desberdintasun-egoeran daude pentsio publikoen prestazio-sisteman (estaldura txikiagoa dute eta prestazioen zenbatekoak txikiagoak dira) eta, horrez gainera, aurreikuspen-sistema osagarri eta borondatezkoetan ere desberdintasun-egoeran dauden.

Alde horretatik, gizarte-aurreikuspen osagarriko eredu berdinzale bat bultzatu nahi bada, ezin da ahaztu zer genero-desberdintasun dauden gaur egun, eta oso kontuan izan behar da emakumeek eta gizonak ez dutela egoera berdina bizi lan-merkatuan eta esparru ekonomikoan.

Hala ere, lehenik eta behin, gizarte-aurreikuspeneko hiru plan-modalitateak azaltzea komeni da:


- Enpleguko aurreikuspen-planak: langileentzako planak dira, eta enpresen eta lan-harremanen esparruan eratzen dira.
- Aurreikuspen-plan elkartuak: erakunde sozial eta/edo profesioaletan jarduten dutenentzako planak izaten dira (elkarteetako kideak, sindikatuetaoak, etab.).
- Banakako aurreikuspen-planak: finantza-erakundeek sustatutako kontu pertsonalak dira, eta edozein pertsona fisiko elkartu daiteke horietan.

Beheko taulan ikus daitekeen moduan, emakumeek eta gizonak banaketa ezberdina dute plan-moten arabera. Datuak aztertzen ditugunean ikusiko dugu gertakari hori ez da kasualitate hutsa, emakumeen eta gizonen arteko aldeak daude datu horien atzean, eta, bereziki, produkzio- eta ugaltze-lanen banaketan eta baliabide ekonomikoen eskurapen-moduan bizi dituzten desberdintasunak.

Emakumeen eta gizonen banaketa BGAE modalitatearen arabera. 2008 Urtea.

	Banakako planak	%	Enplegu-planak	%	Plan elkartuak	%	Guztira Aurreikuspen-planak	%
Emakumeak	384.878	42%	156.311	38%	1.218	27%	542.407	41%
Gizonak	528.126	58%	255.206	62%	3.234	73%	786.566	59%
GUZTIRA	913.004	100%	411.517	100%	4.452	100%	1.328.973	100%
G% - E%		16%		24%		46%		18%

Iturria: BGAEen erregistroa



Produktzio- eta ugaltze-lanen banaketa: Lana sexuen artean banatzeko moduak, gaur egun, emakumeen bizkar uzten du ugaltze-lanen ardura, gizonak ez baitute aurrerapauso nabarmenik egin arlo horretan; horixe da, hain justu, lan produktiboa emakumeen eta gizonen artean modu orekatu batean banatzeko eragozpen handietako bat. Egia da emakumeek gero eta presentzia handiagoa dutela lan-merkatuan eta horrek eragina duela haien jardura-tasan (% 47,6), baina tasa hori gizona baino nabarmen apalagoa da oraindik ere (% 64koa da gizona).

Biztanleria aktiboari dagokionez, hau ikusten da:

- jardun-egoeran zegoen biztanleriaren % 57 emakumeak ziren 2009. urtean, baina emakumeen presentziak behera egiten du lan-jardunerako dedikazio-mailak gora egin ahala; izan ere, zentzu hertsian lan-okupazioko egoeran daudenen artean, emakumeak soilik % 44,3 dira, eta gaitzuzkoak dutenen artean, % 26,6.
- lanekoak ez diren jarduerak egiten dituzten pertsona aktiboak, lanik bilatzen ez duten pertsonak eta soilik etxeko lanak edo ikasketak egiten diharduten pertsonak errepikatuz gero, ikusten da emakumeak direla 10 pertsonatik 7.
- proportzioak alderantziz egiten dira lanik gabe eta erretiratu bizi diren pertsonak behatuz gero: gizona 10 pertsonatik 8 baino gehiago.

2.15. taula. 16 urte eta gehiago dituzten pertsonen banaketa, jardueraren eta sexuaren arabera. 2009

	Guztira		Emakumeak		Gizonak	
	Abs.	Abs.	%	Abs.	%	
Guztira	1.864,1	958,3	51,4	905,8	48,6	
Jarduera duten biztanleak	1.626,1	926,5	57,0	699,6	43,0	
Lanean dihardutenak	951,5	420,8	44,2	530,7	55,8	
<i>Gainokupatuak</i>	38,3	10,2	26,6	28,1	73,4	
<i>Okupatuak zentzu hertsian</i>	897,9	397,4	44,3	500,5	55,7	
<i>Lanean diharduten gainerakoak</i>	15,2	13,2	86,8	2,0	13,2	
Lanekoa ez den jarduera dutenak	674,6	505,7	75,0	169,0	25,1	
<i>Lanekoak ez diren jardueratan okupatuak</i>	626,5	475,2	75,8	151,3	24,2	
<i>Lanekoak ez diren jardueratan diharduten gainerakoak</i>	48,2	30,5	63,3	17,7	36,7	
Jarduerarik gabeko biztanleria	238,0	31,9	13,4	206,2	86,6	
Lanik gabeak zentzu hertsian	36,1	5,1	14,1	31,0	85,9	
Erretiratuak zentzu hertsian eta beste batzuk	201,9	26,8	13,3	175,1	86,7	

Fuente: EUSTAT. PRA.

Euskadiko gizon eta emakumeen egoerari buruzko zifrak. 2010eko Txostena. Emakunde.

Egoera aktiboan ez dagoen biztanleriari dagokionez, hau ikusten da:

- aktiboan ez dauden pertsonen % 60 emakumeak ziren, eta jardunean ez izatearen arrazoi nagusia etxeko lanak egiten dedikazio handiagoa izatea zen (% 43,6).
- Gizonezkoen kasuan, jardunean ez izatearen arrazoi nagusia erretiratuta egotea edo erretiratzeko aurreko egoeran izatea zen (% 62,6); soilik % 5ek egiten zituen etxeko lanak.

2.17. taula. 16 urte eta gehiago izan eta egoera aktiboan ez dauden pertsonak (mila pertsona) EAEn, jarduera-eza motaren eta sexuaren arabera. 2009

	Guztira		Emakumeak		Gizonak		
	Abs.	Abs.	%H	%V	Abs.	%H	%V
Guztira	778,0	470,2	60,4	100	307,8	39,6	100
Ikasten	106,6	55,6	52,2	11,8	51,0	47,8	16,6
Erretiratuak edo aurretik erretiratuak	264,2	71,5	27,1	15,2	192,7	72,9	62,6
Etxeko lanak	219,7	205,0	93,3	43,6	14,7	6,7	4,8
Ezintasun iraunkorreko egoeran	69,2	38,7	55,9	8,2	30,4	43,9	9,9
Erretirokoak edo erretiratu aurrekoak ez diren pentsioak jasotzen dituztenak	99,9	93,3	93,4	19,8	6,5	6,5	2,1
Besteren bat	18,4	5,9	32,1	1,3	12,5	67,9	4,1

Iturria: EIN. HHE. Oharra: G%: % Horizontalak/errenkaadak; B%: % Bertikalak/zutabeak Euskadiko gizon eta emakumeen egoerari buruzko zifrak. 2010eko txostena. Emakunde.

Gizonezkoek ez dute emakumeekin konpartitzen ugaltze-lanen ardura, eta, ondorioz, nagusiki emakumeek egiten dituzte etxeko lanak eta zaintza-lanak, ordainik jaso gabe, eta horrek asko baldintzatzen ditu emakumeek lan-merkatuan sartzeko eta merkatu horretan irauteko dituzten aukerak. Izan ere, belaunaldien arteko elkartasuna indartzen ari den arren eta lana eta familia-bizitza bateratzeko neurriak hartzen badira ere, emakumeentzat kaltegarria da oraindik ere produkzio-lanak zati batean, aldi baterako edo osorik utzi beharra, autonomia ekonomikoa erdiesteko bidea oztopatzen baitie. Lan ordaindurik ez duten emakumeek ez dute diru-sarrerara propiorik izaten, ezta, ondorioz, erretiroagatik kontribuzio-prestaziorik ere; beraz, zaila izango da haientzat borondatezko aurreikuspen-sistemaren batean sartzea. Lanean dauden emakumeen kasuan, okupazio-sektoreari erreparatu behar zaio jakiteko zer-nolako aukerak izango dituzten aurreikuspen-sistema osagarrietan sartzeko.

Izan ere, EAEn, emakumeek lan-okupazio apalagoa dute (% 44), eta horrek azal lezake haien presentzia enpleguko aurreikuspen-planetan ere apalagoa izatea (% 38) . Hala ere, kontuan izan behar da, halaber, zerbitzuen sektorean BGAE erakundeek ezarpen-maila apalagoa dela. Sektore-hitzarmen indartsuko eremuetan dute ezarpenik handiena Enpleguko BGAE erakundeek, enplegu-baldintza egonkorrak dituztenetan —esaterako, industria-sektorean—, eta kontuan izan behar da gizonen presentzia oso handia izaten dela sektore horietan. Hori horrela, agerikoa da industria-sektorean gizarte-aurreikuspen osagarriak ezarpen handia izateak batez ere gizonetzko dakarkielan onura, lanean dauden pertsonen % 80 baino gehiago baitira sektore horretan. Bestalde, gizarte-aurreikuspen osagarriak ez du ezarpen-maila handirik zerbitzuen sektorean, araupen-maila apalagoa eta sindikatu-babes urriagoko sektorea den aldetik. Horrek guztiak kalte handia egiten die emakumeei, lanean ari diren emakumeen % 87,5ek sektore horretan lan egiten baitu.

Justizia, Enplegu eta Gizarte Segurantzako Sailak Gizarte Aurreikuspen Osagarriak Euskadin duen egoerari buruzko Txostena argitaratu zuen (2006). Txosten horrek esaten du gizarte-aurreikuspen osagarriak ezarpen-maila askoz handiagoa duela sektore publikoan, enpresa pribatuetan baino. Enpleguko aurreikuspen-planak dituzten administrazio publikoetan lan egiten duten 96.278 pertsonen enplegu publikoaren jardun-esparru ia osoa hartzen dute. Hori horrela izatea onuragarria da emakumeentzat, emakumeen presentzia sektore publikoko soldatapeko langileen artean % 60,1ekoa baita, Zifrak izeneko txostenaren arabera. Hala ere, kontuan izan behar da enplegu-planen partaide gehienek, hau da, % 73,7k, sektore pribatuan lan egiten dutela.

Emakumeek erakunde sozial eta profesionaletan gizonetzkoekin baino partaidetza apalagoa duten heinean, mugatuagoa da, era berean, aurreikuspen-plan elkartuetan duten presentzia (% 27). Egia da modalitate hori ez dagoela oso zabaldua, baina hori ikusten da distantziarik handiena sexuaren arabera.

Azkenik, adierazi behar da banakako aurreikuspen-planek erakusten dutela sexuen arteko desberdintasun txikiena, hau da laneko esparruetatik eta elkarteetan esparruetatik at daudenek; kontuan hartu behar da emakumeak beranduago iritsi direla horietara. Banakako sistema da, zalantzarik gabe, zabalduena, baina lotura estua du pertsonen ondarearekin eta aurrezteko gaitasunarekin; beraz, alderdi ekonomikoan emakumeen eta gizonen artean ikusten diren aldeak, jarraian aztertuko ditugunak, baldintzatu egiten dute emakumeek plan horiek eskuratzeko dituzten aukerak (plan horiek dituzten pertsonen % 42 dira).

Baliabide ekonomikoaren eskurapena: Alde handiak daude emakumeen eta gizonen eroste-ahalmenen artean. Izan ere, emakumeen batezbesteko guztizko errenta pertsonala 11.857 eurokoa da, eta gizonena ia bikoitza, 23.224 eurokoa.

2.49. taula. Batez besteko errenta pertsonala errenta-motaren eta sexuaren arabera (eurotan). 2006

	Guztira	Emakumeak	Gizonak	G-E
Errenta guztira	17.362	11.857	23.224	11.367
Lan-errenta	11.002	7.058	15.202	8.144
Kapital higigarrien errenta	1.702	1.550	1.865	315
Kapital higiezinen errenta	258	280	233	-47
Jarduereen errenta	966	543	1.416	873
Transferentziak	3.433	2.425	4.507	2.082
Errenta erabilgarria	14.598	10.194	19.287	9.093

Iturria: EUSTAT. Errenta Pertsonal eta Familiarraren Estatistika. Oharra: G-E: Gizonen errenta – Emakumeen errenta.

Euskadiko gizon eta emakumeen egoerari buruzko zifrak. 2010eko txostena. Emakunde.

Lan-errenten diru-sarrerek azaltzen dute, neurri batean, diferentzia hori, gizonen batez beste jasotzen duten errenta (15.202 eurokoa) emakumeen errentaren bikoitza baino handiagoa baita (emakumeek 7.085 euroko errenta jasotzen dute). Lan-errentaren zenbatekoan ikusten diren aldeak arrazoiak bat da emakumeek gizonen baino okupazio-tasa txikiagoa dutela; hala ere, lan-okupazioaren bat duten pertsonen batez besteko lan-errentak aztertuz gero, ikusten da emakumeek lan-merkatuan duten egoera eta soldatetan dauden diferentziak direla alde horien arrazoi nagusiak. EIN estatistika-erakundeak soldaten egiturari buruz 2007an egin zuen inkestaren emaitzen arabera, 7.139 euroko aldea dago, batez beste, gizonen eta emakumeen artean irabazten duten soldaten artean.

Edonola ere, emakumeek eta gizonen artean irabazten dituzten errenten aldean dauden alde horiek ez dira desagertzen haien produkzio-garaia amaitutakoan; izan ere, 65 eta 69 urte bitarteko emakumeen batez besteko errenta 9.068 eurokoa da, eta gizonena, berriz, 24.061 eurokoa. Dena den, adin horietan, ez dira soldata-aldeak diferentzia horren arrazoiak, aurreko bizi-zikloan produkzio-lanarengatik eskuratu diren eta aitortu zaizkien eskubideak baizik.

Gizarte-aurreikuspen osagarriko sistemen funtzionamenduaren funtsezko elementuak dira pertsonen ondarearen gaitasun ekonomikoa, errenta eta aurrezkiak; beraz, ez da harritzekoa gizonetzkoekin parte hartze handiagoa izatea gizarte-aurreikuspen osagarriko sistemetan eta haiek egiten dituzten ekarpenak, datuen

arabera, emakumeek egindakoak baino % 20 handiagoak izatea.

Gizarte-aurreikuspen osagarriko sistemarako egindako urteko ekarpenak (€), sexuaren arabera.

Sexua	Euskadi	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa
Emakumea	2.031	2.169	2.093	1.921
Gizonezkoa	2.485	2.690	2.549	2.350

Euskadiko Gizarte Aurreikuspen Osagarriari buruzko txostena (2006)


8.- Erabakiak hartzeko garaian, gizonen eta emakumeen ordezkapen orekatua edo, gutxienez, esparruan duten ordezkapenaren antzeko ordezkapena aurreikusten al du ematekoa den arauak edo administrazio-egintzak?

Bai. Izan ere, berariazko neurriak aurreikusi dira emakumeen eta gizonen ordezkapen orekatu bat bermatzeko BGAE erakundeetako gobernu-organoak aukeratzeko garaian. Neurri horien helburua da emakumeen ordezkapen-gabezia gaintzea eta, ondorioz, behar bezalako ordezkapena izatea esparru horretan erabakiak hartzeko garaian.

Emakumeek eta gizonak gizarte-aurreikuspeneko erakundeetako gobernu-organoetan duten banaketak agerian uzten du gizonetako hartu ohi dituztela erabakiak erakunde horietan:

- Gaur egun EAEn dauden gizarte-aurreikuspeneko 181 erakundeetatik 12tan bakarrik da emakumezkoa lehendakari, eta horrek esan nahi du erakunde horien % 92tan gizonetako dela lehendakari, eta emakumezkoa soilik % 6tan.
- Lehendakariordetzako karguetan ere, askoz gehiago dira gizonak emakumeak baino, ehunekoetan alde handiarekin: % 85 gizonetako dira eta soilik % 13 emakumezkoak.
- Idazkaritzako karguetan, generoen arteko aldea apalagoa da, baina emakumeen presentzia, hala eta guztiz ere, gizonena baino % 20 txikiagoa da.

Emakumeen eta gizonen banaketa EAEko BGAEetako Zuzendaritza Batzordeetan.2008 Urtea.



Bestalde, oraindik sortu ez denez, ezin da jakin zer-nolako partaidetza duten emakumeek eta gizonak Gizarte Aurreikuspeneko Euskal Kontseiluan; hala ere, ikusita emakumeen ordezkaritza ez dela orekatua Eusko Jaurlaritzaren kide anitzeko beste organo askotan, hori bera gerta daiteke kontseilu horretan ere. Horren harian, Emakunde azterlan bat argitaratu zuen 2008. urtean, emakumeek eta gizonak Euskadiko erabakiguneetan duten partaidetzaren berri emateko. Azterlan horrek sexuaren arabera aztertu zuen kide anitzeko gobernu-organoen osaketa, eta egiaztatu zuen haien % 30etan soilik zela orekatua gizonen eta emakumeen ordezkapena.

Ildo horretatik, aurreproiektuak ez du berariazko xedapenik aurreikusten emakumeen eta gizonen partaidetza orekatua sustatzeko Gizarte Aurreikuspeneko Euskal Kontseiluan, baina kontuan hartuko du alderdi hori haren berariazko arau-garapena ematean.

9.– Aurreikusten al da arau edo administrazio-ekintzak proposatutako helburu eta neurriak baliagarri izango direla emakumeei eta gizonei lotutako arau sozialak eta balioak gainditu edo aldatzeko?

Ez. Izan ere, androzentrismoak lehenetsuna ematen dio produkzioari (gizonen bizkar jarria), eta bigarren mailan uzten ditu ugalketa-lanak (emakumeen bizkar jarriak); hala, aintzat hartu behar da gaur egungo eredu sozial eta ekonomikoa merkatu-ekonomiaren inguruan eratzen eta antolatzen dela. Azken horrek produkzio-lanari bakarrik erreparatzen dio, eta alde batera uzten ditu ugalketa-lanak, nahiz eta azken horiek ezinbestekoak diren biziraupenerako.

Alde horretatik, Gizarte Segurantzako sistema ere produkzio-egituraren inguruan eratzen eta, ondorioz, haren babes-jarduna eta babes horren norainokoa baldintzatuta geratzen da, jarduera profesionalen harian egindako kontribuzioekiko (kontribuzioaren printzipioa) eta kontribuzio horien zenbatekoarekiko (proportzionaltasunaren printzipioa). Gizarte-babeseko sistemaren egitura horrek kalterako desorekak sortzen dizkie lan-merkatuan ordaindutako lanik egiten ez duten emakumeei (eta ezkutuko ekonomian jarduten emakumeei), eta, lan bat izan arren, lan-baldintza prekarioak dituzten emakumeei.

Alde horretatik, banakoen lanak eta gaitasun ekonomikoek dakarten errendimendu ekonomikoan oinarritzen dira borondatezko aurreikuspen-sistemak ere, eta ez dira, ondorioz, sistema publikoaren babes apalagoa jasotzen duten emakumeen gizarte-babesa osatzeko irtenbidea; aitzitik, borondatezko aurreikuspenek duten banaketa desorekatuak adierazten duen moduan, handitu edo, gutxienez, mantendu egiten ditu gaur egun ikusten diren desorekak. Azken batean, sistema batean zein bestean ikusten diren desorekek jatorri bera dute: ugaltze-lanaren aintzatespenik eta balioespenik eza.

Kontuan izan behar da egun indarrean den sistemak mantendu eta, are, handitu egiten dituela familien ondarea banatzean emakumeen eta gizonen artean ikusten diren desorekak; izan ere, adibide bat jartzearen, enpleguko aurreikuspen planetan soldata moduan jasotzen ziren diru-zenbatekoak —eta, ondorioz, bi ezkontideen irabazpidezko ondasunak zirenak— planetara egindako ekarpen izatera igarotzen dira sarri, eta planaren bazkide den pertsonak soilik erabakitzen du nor edo nortzuk izango diren onuradunak. Batez ere emakumeengan gertatzen den eragin negatibo hori saihesteko —banaketa gabezia horrekin gehienbat eurak geratzen direlako okerren-, aurreproiektuak klausula bat sartzen du, Estatuan aitzindaria dena. Klausula horri esker, banantze- dibortzio- edo deuseztasun-epai baten ondoren, ezkontide bien artean banatzen dira gizarte-aurreikuspeneko plan baten eskubide ekonomikoak, eta horien banaketa ere biei izendatzen zaie. Horrela, aurrerantzean, bakoitzak bere partaidetza izango du gizarte-aurreikuspeneko planean, bakoitzak bere aldetik

10.– Bermatzen al da diskriminazioa saihestu eta berdintasuna bultzatzea helburu duten arauak eta bestelako tresna juridikoak beteko direla eta haiek hobetzeko aukera izango dela?

Bai. Jarraian azalduko dugun moduan, bete egin dira, oro har, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legeak 16., 18.4., 19-21 eta 24. artikuluetan arautzen duena:

- Behar bezala betetzeko 4/2005 Legeko 16. artikulua arautzen duena, sexu-aldagaia jasotzen da BGAE erakundeek Eusko Jaurlearitzaren Finantza Zuzendaritzari derrigorrean igorri behar dioten kontularitzako estatistika-informazioaren artean, eta emakumeen eta gizonen egoeratan ikusten diren aldeak aztertzei aukera ematen du horrek.
- Aurreproiektua idaztean, oro har, ez da hizkuntzaren erabilera sexistarik egin, eta, ondorioz, bete egin da 4/2005 Legeko 18.4. artikulua arautzen duena.
- Finantza Zuzendaritzak, araua sustatu duen organoa den aldetik eta bere sailaren berdintasun-unitateak aholkatuta, araua egiteko prozesuan, Generoaren araberako Eraginari buruzko Txostena egin du, eta Emakunderi igorri dio, txostena egiteko. 4/2005 Legearen 18. artikulutik 21. artikulura bitartean arautzen denarekin bat etorritik egin dute hori guztia. Hala ere, arauaren azalpen-zatian, ez da aipamenik egin, ez orokorrik, ez berariazkorik, txosten hori egin izanari buruz, eta aipamen hori egin

behar dela arautzen du Legearen 22.2. artikulua.

- Aurreproiektuak, 4/2005 Legeko 24. artikulua arautzen duena betetzeko, xedapen bat du BGAE erakundeetako zuzendaritza-batzordeek gizonen eta emakumeen partaidetza orekatua edo, gutxienez, bazkideek duten presentziaren ehunekoarekiko proportzionala izango dutela bermatzeko. Horrez gain, berariaz eman da horren berri aurreproiektuaren azalpen-zatian.
- Aurreproiektuak ez du inon adierazten arauko neurririk hartu denik emakumeen eta gizonen presentzia orekatua sustatzeko Gizarte Aurreikuspeneko Euskal Kontseiluan. Hala ere, 4/2005 Legeko 23. artikulua arautzen duena betetzeko, alderdi hori aintzat hartzeko neurriak hartuko dira berariazko araupena ematen denean.

**EMAKUMEEN ETA GIZONEN ARTEKO BERDINTASUNA BULTZATZEKO
ETA EZBERDINTASUNAK EZABATZEKO NEURRIAK**

Jaso al da neurriarik arau edo administrazio-egintzaren proiektuan...		<i>Adierazi zer artikulutan jasotzen diren neurriak eta egin haien deskribapena.</i>
... genero-ikuspegia txerta dadin sustatzeko? Bai	<input type="checkbox"/> emakumeen eta gizonen egoerek erakusten dituzten aldean ezagutza hobetzen da.	
	<input checked="" type="checkbox"/> emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna jasotzen da printzipio moduan, helburu moduan edo adierazpen nahiz azalpen gisa.	<i>Aurreproiektuaren 53.2 artikuluan jasotzen den neurria aipatu da haren azalpen-zatian.</i>
	<input checked="" type="checkbox"/> hizkuntzaren erabilera ez-sexista egiten edo sustatzen da.	<i>Testua idaztean, oro har, modu ez-sexistan erabili da hizkuntza.</i>
	<input type="checkbox"/> genero-gaiei buruzko prestakuntza duten pertsonen eta/edo berdintasunaren alde lan egiten duten erakundeen partaidetza sustatzen da.	
	<input type="checkbox"/> eduki edo irizpide moduan jasotzen da berdintasuna (onartzeko, baloratzeko edo betetzeko), hautatze-prozesuetan, laguntzak eta hitzarmenak egiteko prozesuetan, prestakuntza-jardueretan, etab.	
	<input type="checkbox"/> beste batzuk, zehazki: _____	
... emakumeen eta gizonen partaidetza orekatua sustatzeko? Bai	<input type="checkbox"/> hautatze-epaimahaietan.	
	<input type="checkbox"/> sariak emateko epaimahaietan.	
	<input type="checkbox"/> kontsulta-organoetan.	
	<input checked="" type="checkbox"/> zuzendaritza-organoetan.	<i>Proiektuaren 53.2. artikuluan klausula bat jarri da emakumeen eta gizonen partaidetza orekatua sustatzeko BGAE erakundearen zuzendaritza-batzordeetan.</i>
	<input type="checkbox"/> beste batzuetan, zehazki: _____	
... ekintza positiboak lantzeko? Ez	<input type="checkbox"/> emakumeentzat.	
	<input type="checkbox"/> gizonak berdintasunaren alde inplikatzeko.	
	<input type="checkbox"/> beste batzuk, zehazki: _____	
... itxuraz neutroa dena baina generoaren arabera eragin onuragarria izan dezakeena? Bai	<input type="checkbox"/> indarkeriaren biktimantzat.	
	<input type="checkbox"/> guraso bakarreko familientzat.	
	<input type="checkbox"/> mendekotasun-egoeran dauden pertsonen zaintzaileentzat.	
	<input checked="" type="checkbox"/> beste batzuentzat, zehazki: ezkontza banaketa izan duten ezkonkideentzat	<i>19.3 artikuluan, aurreikuspen bat sartu da, Estatuan aitzindaria: banantze, dibortzio edo ezkontza-deuseztasuna gertatuz gero, gizarte-aurreikuspeneko plan batek dakartzan eskubide ekonomikoak emakumeen eta gizonen artean zuzenago banatzea ahalbidetzen du.</i>
... askotariko diskriminazioa pairatzen	<input type="checkbox"/> adinaren arabera.	
	<input type="checkbox"/> gizarte-mailaren arabera.	

duten emakumeen desberdintasun-egoerak berdintzeko? Ez	<input type="checkbox"/> sexu-aukeraren arabera.	
	<input type="checkbox"/> desgaitasunaren arabera.	
	<input type="checkbox"/> etnia eta/edo arrazaren arabera.	
	<input type="checkbox"/> nazio-jatorriaren arabera.	
	<input type="checkbox"/> beste batzuen arabera, zehazki: _____	
... debekuak edo zehapenak ezartzekoa denik? Ez	<input type="checkbox"/> sexuagatiko diskriminazioak egiteagatik.	
	<input type="checkbox"/> hizkuntzaren eta irudien erabilera sexista egiteagatik.	
	<input type="checkbox"/> beste arrazoi batzuegatik, zehazki: _____	

Arau edo administrazio-egintzaren edukiaz gain, aurreikusten al da bestelako neurririk...	Deskribapena	
... berdintasunerako helburu eta neurrien eraginkortasuna osatu edo handitzeko? Bai	<input type="checkbox"/> hedapena indartzeko ekintzak.	
	<input checked="" type="checkbox"/> jarraipena egiteko eta ebaluatzeko jarduerak.	<i>Jarraipen berezia egingo zaio aplikazioari eta aurreproiektuaren 19.3 artikuluan sartutako neurriak izandako eraginari</i>
	<input checked="" type="checkbox"/> estatistikak egitea eta azterlan espezifikoa egitea.	<i>BGA Eren Erregistroko estatistika-ustiaketa egokitu egingo da, eta horrela, sexuaren aldagaia ez ezik, estatistika-eragiketa zehatzak ere egongo dira, emakumeek eta gizonen eremu hauetan duten presentziari buruz:</i> <i>- gizarte-aurreikuspeneko plan modalitate guztietan, adinaren eta desgaitasunaren arabera</i> <i>- BGA Eetako zuzendaritza-batzordeetan</i> <i>Horrek emakumeek eta gizonen duten egoera desberdina hobeto ezagutzea ahalbidetuko du, eta BGA Eren eremuan jarduera publikoa genero-ikuspegitik bideratzen lagunduko.</i>
	<input type="checkbox"/> Informazio-, sentsibilizazio- eta prestakuntza-ekintzak.	
	<input checked="" type="checkbox"/> Arauak, planak edo programak egokitzea edo prestatzea.	<i>Emakumeen eta gizonen ordezkapen orekatua sustatzeko neurriak jasoko dira Gizarte Aurreikuspeneko Euskal Kontseiluaren berariazko araudian.</i>
	<input type="checkbox"/> berdintasunerako planak egitea.	
	<input type="checkbox"/> egiturak eta zerbitzuak sortzea.	
<input type="checkbox"/> beste batzuk, zehazki: _____		

2010eko irailak 30.

Txostena egin duenaren sinadura:

Proiektuaren ardura duen zuzendariaren sinadura: